




HARRERA **GIDIA**



AGURRA



ONGI ETORRI



Historiako hainbat unetan izandako migrazio-mugimenduen ondorioa da gure herria. Migrazio horiek osatu eta aberastu egin dute gure herria, eta hala egiten jarraitzen dute, baina ez bakarrik gure bizi-kalitatearen oinarri den garapena bultzatzen dutelako, baizik eta horri esker gure herria zentzu guztietan aberatsagoa delako.

Argi daukagu jatorri ezberdineko bizilagunen etorrera landu eta kudeatu beharra dagoela, eta lan hori bi norabideko prozesu gisa ulertzen dugu; horrela, inguru berrira egokitzeko ahalegina ez da izango etorri berriena bakarrik, bertakoek ere urratsak eman behar ditugu gero eta anitzagoa den gizarte batera egokitzeko.


Nolanahi ere, etorri berriak egingo du egoera berrira egokitzeko ahalegin handiena. Hori horrela da. Izan ere, euskaldunak ere herri migratzailea izan garenez, ondo dakigu ez dela erraza zure sorlekua utzi, eta beste herrialde batean bizimodua hastea, are gehiago, bizitza zailtzen duten faktoreak sartzen badira tartean.

Horregatik guztiagatik, Udalak hainbat programa eta egitasmo jarri ditu martxan etorrera hori ahal den neurrian samurtzeko. Horien berri ematen dugu harrera-gida honetan. Horrez gain, udal baliabideei buruzko informazio baliagarria ere jaso dugu, eskura edukitzea komeni diren hainbat telefono zenbakirekin batera.

Zurentzat interesgarria izango delakoan, jaso ezazue nire ongietorririk zintzoena.

Ongi etorri Zarautzera!

Xabier Txurruka
Alkatea



AURKIBIDEA



01. HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA _ 06



02. ERROLDA _ 07



03. EUSKARA IKASI _ 08



04. OSASUN LAGUNTZA _ 09



05. IRAKASKUNTZA – PRESTAKUNTZA _ 10-11



06. ATZERRIKO TITULUEN HOMOLOGAZIOA _ 12



07. ENPLEGUA _ 13



08. ETXEBIZITZA _ 14



09. HONDAKINAK _ 15



10. GIZARTE BALIABIDEAK _ 16



11. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA _ 17



12. INDARKERIA SEXISTA _ 18



13. EGOERA DISKRIMINATZAILEAK SALATZEKO BALIABIDEAK _ 19



14. EMAKUME MIGRATZAILE ETA ZAINTZAILEENTZAKO ESPAZIOA _ 20



15. FAMILIA MIGRATZAILEEI LAGUNTZEKO PROGRAMA _ 21



16. AHOLKULARITZA JURIDIKOA _ 22



17. IMMIGRAZIOA ETA ANIZTASUN KULTURALA _ 23



18. JAIK ETA EGUN BEREZIAK _ 24



19. GIDATZEKO BAIMENA _ 25



20. BORONDATEZKO ITZULERA HUMANITARIOA _ 26-27



21. ATZERRITARTASUNAREN ARLOKO TELEFONOAK _ 28-29



22. UDAL EKIPAMENDUAK _ 30-31



23. ZARAUTZ PLANOA _ 32-33



01_

HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (HAZ)



1- Udalari edozein motatako eskaera egiteko bidea duzu HAZ zerbitzua: erroldatzea, ekimenak, erreklamazioak, dirulaguntzen eskaerak, lizentzia-eskaerak, e.a

2- HAZeko sarrera-erregistroan erregistratu daitezke, bai Udalari zuzendutako agiriak, eta baita Eusko Jaurlaritzari edo Gipuzkoako Foru Aldundiari zuzendutakoak ere.

Horien artean honakoak:

- Etxebizitzaren egokitasun-txostena:

https://www.euskadi.eus/zerbitzu_eskaera/etxebizitzaren-egokitasun-txostena/web01-tramite/eu/


- Errotze-txostena:

https://www.euskadi.eus/zerbitzu_eskaera/errotze-txostena/web01-tramite/eu/


AURREZ AURREKO ARRETA:

 Kale Nagusia 29, bajo

AUTOZERBITZU MAKINA:

 Kale Nagusia 29, bajo

TELEFONOA:

 010 (desde Zarautz) y 943 005 100

E-MAILA


 haz@zarautz.eus

TELEMATIKOKI:

 <https://www.zarautz.eus/eu/tramiteak>

Ordutegia:

 Astelehenetik ostiralera: 07:30 - 15:00

 Ostegunetan: 17:00 - 19:00

02_

ERROLDA



Herritar guztiak azaltzen diren erregistroari Udal Errollda deitzen zaio, eta erroldan izena emateari errolldatzea. Espainiako nazionalitatea dutenak ez ezik, atzerritarrak ere errollda daitezke, pertsona horien egoera administratiboa edo adina kontuan hartu gabe.


Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrek bizileku-baimen iraunkorrik ez badute, horien errolldatzeak 2 urteko balioa izango du, eta interesdunak berritu egin beharko du, epe hori bukatu ondoren. Hala egin ezean errolldatzea iraungi egingo da.

Garrantzitsua da erroldako erregistroa eguneratuta edukitzea, eta helbidez aldatzen den bakoitzean horren berri ematea.

Tramiteak:

ZARAUZKO UDALA - HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA


 Kale Nagusia 29


 Tel.: 943 005 100

 errollda@zarautz.eus

 udala@zarautz.eus

Ordutegia:

 Astelehenetik ostiralera:
7:30 - 15:00

 Ostegunetan arratsaldez:
17:00 - 19:00

03_

EUSKARA IKASI



Euskara da Zarauzko berezko hizkuntza eta udalerriko bi hizkuntza ofizialetako bat, gaztelaniarekin batera. Kalean entzun eta biziko duzu. Zarautzar gehienek euskaraz hitz egiten dute, eta lehentasunezko hizkuntza da Udalarentzat. Berehala konturatuko zara euskara arlo guztietan dagoela Zarautzen (gizartean, ekonomian, administrazioan, kulturaren eta kirolatan).

Izan zaitetz beste edozein herritar bezalako, ausartu bertako hizkuntza ikastera, eta murgil zaitetz zure herriko kulturari.

Udalak euskara-ikastaro bereziak antolatzen ditu etorri berrientzat, hizkuntzaren oinarriko edukia irakasteko.

Horiei buruzko informazioa jaso edo izena emateko:

GIZARTE ZERBITZUAK

Zigordia 33

Tel.: 943 00 51 27

immigrazioa@zarautz.eus

Euskara ikasteko lekuak:

UDAL EUSKALTEGIA

Iturribide 28

Tel.: 943 131 153

euskaltegia@zarautz.eus

-

AEK EUSKALTEGIA

Zuberua kalea 16-18

Tel.: 943 130 175

zarautz@aek.eus

-

CEPA ZARAUTZ


Pagoeta kalea 2

Tel.: 943 130 013

012760aa@hezkuntza.net

04_

OSASUN LAGUNTZA



Sistema publikoan doakoa den ohiko laguntza medikoa lehen mailako arretako medikuak ematen du lehendabizi. Horrek gaixoa tratatzen du eta, beharrezkoa izanez gero, sendagile espezialista batengana bidaltzen du.

Lehen mailako arretako medikua edukitzeko beharrezkoa da Osasun Txartel Indibiduala (OTI) edukitzea, edota osasun-laguntzarako onarpen-eskaria onartuta izatea. Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-laguntza Osakidetzaren bidez ematen da. Osakidetzak, [osasun-zentro publikoen sarea](#) du.

Zarauzko Anbulatorioa

Salbide kalea 10

Tel.: 943 007 999

Osasun-sare horrez gain, orokorrean doakoak ez diren zentro pribatuak daude,

Larrialdiko osasun-laguntza (24 ordu)

Estatuko zein atzerriko pertsona orok du larrialdiko mediku-laguntza jasotzeko eskubidea, baina osasun-laguntza osoa jasotzeko eskubidea izateko, beharrezkoa da [Osasun Txartel Indibiduala edukitzea](#), edota osasun-laguntzarako onarpen-eskaria onartuta izatea.

Bi gauza horietako bat ere tramitatu gabe izanagatik jaso daiteke osasun-laguntza [Osakidetzako zentroetan](#). Horrelakoetan, arreta doakoa izan dadin, osasun-arazoa konpondu ondoren, pertsona hori osasun-zentro batera bidaliko da, dagokion eskaera aurkez dezan.

ZARAUTZKO ANBULATORIOA

Salbide kalea 10

Tel.: 943 007 999


05


IRAKASKUNTZA - PRESTAKUNTZA

• 18 urtetik beherakoak

Zarautzen, ikastetxe publikoak eta itunpeko pribatuak daude. Plaza libreak badaude, horietako edozein aukeratu ahal duzu adingabeak matrikulatzeko. Eskoletan ez dago sexuaren araberako banaketarik. Hezkuntzako hizkuntza nagusia euskara da.

Ikasturtean zehar, aukeratutako zentrorra bertara joan zaitezke edo, bestela, zuzenean Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Ordezkaritzara.

 Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Ordezkaritza
Andia kalea 13 (20004 Donostia)

 Tel.: 943 022 800

 huisgreg@euskadi.eus


Ikastetxeek adinaren arabera dagokien mailan sartzten dituzte ikasleak, maila akademikoaren eta hezkuntza-beharren araberako egokitzapen txiki batzuekin.

• HERRIKO IKASTETXEAK:

0-2 URTE:

HAURRESKOLA

 Indamendi I

 Tel.: 943 835 919


 zarautz.zarautz@haurreskolak.eus

3-16 URTE:

PUBLIKOAK


 Orokieta Herri Eskola (HH-LH)

 Araba kalea 56


 943 899 130

 012288aa@hezkuntza.net

IKASKETAK HH-LH

 Lizardi Institutua (EDBH- Batxilergoa)

 Gurmendi kalea 11


 Tel.: 943 834 024

 012292aa@hezkuntza.net

ITUNPEKOAK


 Salvatore Mitxelena Ikastola (HH-LH-DBH)

 Maria Etxetxiki kalea 14


 Tel.: 943 831 752

 zarautz@ikastola.net

-


 La Salle – San José (HH-LH-DBH)

 La Salle kalea 2


 Tel.: 943 130 060

 lasallezarautz@lasalle.es

ESTUDIOS EI-EP-ESO


 Antoniano Ikastetxea (HH-LH-DBH)

 Gipuzkoa kalea 3


 Tel.: 943 830 286

 zuzen@antoniano.com

-

 Oteitza Lizeo Politeknikoa (Ikasketak Batxilergoa – LHZ)

 Gipuzkoa kalea 5


 Tel.: 943 111 000

 idazkaria@oteitzalp.org

-

 IES Monte Albertia BHI

 San Ignacio kalea 25

 Tel.: 943 134 223


 012291aa@hezkuntza.net


• 18 urtetik gorakoak

CEPA

Helduentzako doako irakaskuntza-zentroa da. Besteak beste, ondorengo oinarriko prestakuntza eskaintzen du:

- Oinarriko hezkuntza eta gaztelaniaren eta euskararen irakaskuntza.
- Bigarren hezkuntzako egiaztagiria.
- 25 urtetik gorakoak unibertsitatean sartzeko prestakuntza.


 Pagoeta kalea 6 (Zarautz)


 Tel.: 943 130 013


 012760aa@hezkuntza.net

IKASUROLAKOSTA BITARTEKARITZA ZERBITZUA (IKASLAN)

Bizitzan zehar ikaskuntza sustatzeko, bultzatzeko eta lana lortzeko informazio eta aholkularitza bulegoa.

 Asteleheneetik ostegunera,
8:30etik 16:30era
Ostiraletan, 9:00etatik 14:00etara

 Gazte Informazio Bulegoa
Zigordia kalea 34

 Tel.: 645 284 300

 ikasuroлакosta@ikaslangipuzkoa.eus

06

ATZERRIKO TITULUEN HOMOLOGAZIOA

• Atzerrian egindako ikasketen homologazioa

Atzerritarren kasuan, jatorrizko herrialdeekin eginda dauden akordioen arabera egiaztatzen eta baliozkotzen dira aurrez egindako ikasketak. Horretarako, egiaztagirak eraman behar dituzu estatuko Goi-mailako Ikuskaritzak Gipuzkoan duen ordezkariatzara, eta tasa batzuk ordaindu.

GOI-MAILAKO IKASKETAK

Gobernuaren Ordezkariatza Gipuzkoan (Hezkuntza Departamentua)

- Herritarren arreta. 060 bulegoa
Pío XII Plaza 6 (20011 Donostia)
- Tel.: 943 989 300 / 943 989 115

BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASKETAK

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila

- Andia kalea 13, 20004 Donostia
- Tel. 012

• Ikasketak homologatzeko zerbitzua

Emakumeen* Etxeak doako aholkularitza eta informazioa eskaintzen du ikasketak homologatu eta baliozkotzeko (bigarren mailako ikasketak, batxilergoa, ikasketa teknikoak, goi-mailakoak edo unibertsitatea).

EMAKUMEEN* ETXEA ZARAUTZ

Aurretik hitzordua eskatu behar da:

- Hileko azken ostiralean, 15:30etik 19:30era, Emakumeen* Etxean.
- Nafarroa Kalea 3, behea
- 10:30-12:30 eta 15:30-20:30
- Tel.: 943 005 136
- emakumeen-etxea@zarautz.eus

07

ENPLEGUA

Enplegua bilatzeko zerbitzuak:

• Lanbide

Eusko Jaurlaritzaren enplegu zerbitzua da. Jo bertara lehen enplegua bilatzen ari bazara, langabezian bazaude, lan-merkatura itzuli nahi baduzu, edo lanean arituta ere enpleguz aldatu nahi baduzu.

Enpresei aholkularitza eta laguntza eskaintzen zaie enplegua sortzeko, eta langileak behar dituztenean bertara jotzen dute.

- Bizkaia kalea 61
- Tel.: 945 160 600 eta 630 305 452
- zarautz@lanbide.eus

• Urola kostako Udal Elkarteak

Lan-poltsa zerbitzua (orokorra).

Etxeko eta zaintza lanetarako berariazko lan-poltsa:

- lanpoltsa@urolakosta.eus

• Autoenplegu tailerra.

- Asteleheneetik ostiralera: 8:00-15:00
- Urdaneta bidea 6
- Tel.: 943 890 808
- harrera@urolakosta.eus

Lan-eskubideak:


Bizileku-baimenik eta lan-baimenik gabeko langile atzerritarrak ez daude egoera erregularrean, baina lan-eskubideak dituzte. Ohiz kanpokotzat jotzen den edozein gorabehera, hala nola gehiegizko ordutegiak, soldata-diskriminazioak, zenbatekoen erreklamazioak, istripu-arriskua edo bidegabeko kaleratzeak, sindikatuei edo Lan Ikuskaritzari jakinaraz dakizkieke.

LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO IKUSKARITZA

- Urdaneta 7, 1.a (20006 Donostia-San Sebastián)
- Tel.: 943 023 550
- itpv-gipuzkoa@euskadi.eus

08

ETXE BIZITZA



• Nola aurkitu bizitzeko lekua?

Herritar gehienek hainbat bide erabiltzen dituzte etxebizitza bilatzeko:

Pribatua: prentsako iragarkiak, web orrietakoak, saltokietakoak eta leku publikoetan jarritakoak. Beste batzuek higiezin agentzietara jotzen dute. Enpresa horiek pribatuak dira, eta hortaz, dirua kobratzen dute egiten duten kudeaketa-lanengatik.

Publikoa: horretaz gain, badira baliabide edo zerbitzu publikoak ere etxebizitza bat eskuratzen laguntzeko (alokairuan zein erosketan). Kasu guztietan, pertsona guztiak aukera izango dute babestutako etxebizitza bat eskuratzeko, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- 1- Identifikaziorako: Europar Erkidegoko herritarren kasuan, Atzerritarren Erregistro Zentralean izena eman izanaren egiaztatzea. Bestelako atzerritarren kasuan, bizikidetzaren unitateko 14 urtetik gorako kideen egoiliar-txartela, iraupen luzekoa.
- 2- Adin nagusikoa izatea, edota adingabe emantzipatua.
- 3- Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea, gutxienez urtebetez.

4- Etxebizitzaren premia frogatzea.

5- Diru-sarrerak frogatzea.

• Laguntza eskatzeko zerbitzu publikoak:

ZARAUZKO UDALA - ETXE BIZITZA BULEGOA (ZARAUTZ-LUR)

📍 Salegi kalea 14, 20800 Zarautz

☎ Tel.: 943 005 129

✉ etxebizitza@zarautz.eus

EUSKO JAURLARITZA - ETXEBIDE - ALOKABIDE

📍 Andia kalea 13, 20004 Donostia

☎ Tel. 012

☎ Tel. 902 540 540 (Alokabide)

✉ etxebizitza@zarautz.eus

🌐 www.etxebide.info

09

HONDAKINAK



Gure herrian ingurumeneko arazo nagusietako bat HONDAKINAK dira.

Zabor gehiegi sortzen dugu eta hori arazo bat da, batetik, oinarritzko materia piloa alferrik galtzen delako eta, bestetik, zabor hori erraustegira eta zabortegetara eramaten delako, horrelako instalazioek sortzen dituzten arazoekin, bereziki airearen eta lurraren kutsadura.

Horregatik, oso garrantzitsua da ahal dugun gehien birziklatzea, berriro oinarritzko materialak errekupeatzeko eta zabortegeti eta erraustegiak murrizteko.

Birziklapenak etxean hasi behar du, hondakinak gaika banatu eta bakoitza bere edukiontzian botatzeko.

Zeregin txiki horrekin, laguntza HANDIA emango diozu ingurumenari.

Zaborratarako txartela eskatzeko:

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA

🕒 Astelehenetik ostiralera: 8:30-14:00

📍 Urdaneta bidea 6

☎ Tel.: 943 890 808

✉ hondakinak@urolakosta.eus

10



GIZARTE BALIABIDEAK

• OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK


Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari sartzeko ataria da. Bere funtzio nagusiak hauek dira: behar sozialak antzematea eta artatzea, eta pertsonen, familien eta taldeen integrazio soziala lortzea.

Zarauzko beste edozein pertsonak bezala, eskubidea daukazu Udal Gizarte Zerbitzuetara jotzeko.


Zarautzen erroldatutako pertsona guztientzako zerbitzuak dira, haien nazionalitatea edozein izanda ere, eta egoitza-baimena edukita edo eduki gabe.

ZARAUZKO UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK

 **Telefonoz:**
astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era

 **Aurrez aurre:**
astelehen, astearte eta ostegunetan
08:30etik 13:30era /Asteazken eta ostiraletan 10:00etatik 13:00etara

 Zigordia kalea,33


 Tel.: 943 005 111 - 943 005 127


 ongizatea@zarautz.eus


CÁRITAS

Karitatezko laguntza soziala ematen duen kristau erakundea da

Cáritas (Zarautz)

 Astearteetan, 10:00etatik 11:30era
(ordu hartuta)

 Mitxelena kalea 51

 Tel.: 943 894 323

11



EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

Zarauzko Udalak Parekidetasun Departamentua dauka, eta honako gai hauei buruzko informazioa, aholkularitza eta kontsulta eskaintzen ditu:


- Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunari buruzko edozein gai.
- Sexu- eta genero-arrazoiengatikoko diskriminazioarekin lotutako gaiak.
- Indarkeria matxista eta tratu txarrak.

Emakumeen* Etxea berdintasunean aurrerapausoak emateko, lankidetzaren sareak sortzeko eta feminismoaren hausnartzeko dugun espazioa da.


• Zerbitzuak:


- Aholkularitza zerbitzuak. Doakoak eta konfidentzialak.
- Juridikoa - asteazkenetan: 16:00-20:00
- Psikologikoa – astearteetan: 16:00-20:00
- Emakumeentzako Jabetze Eskola
- Liburutegia eta kontsultetarako ordenagailuak.

EMAKUMEEN* ETXEA

 Astelehenetik ostiralera:
16:00 -20:00

 Facebook:
[Zarauzko Emakumeen Etxea](https://www.facebook.com/ZarauzkoEmakumeenEtxea)

 Nafarroa 3-C, 20800 Zarautz

 Tel.: 943 005 136

 emakumeen-etxea@zarautz.eus

12_ INDARKERIA SEXISTA



Zer egin dezakezu tratatu txarreko egoera batean bazaude?

Larrialdietan, deitu Eusko Jaurlaritzaren SOS Deiak telefonora (Tel.: 112), eta eskatu laguntza eta akonpainamendua.

Hauetako zerbitzu batera joan edo deitu:

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK

🕒 Astelehenetik ostiralera: 8:30-14:30

📍 Zigorria kalea, 33

☎️ Tel.: 943 005111/943 005127

GIZARTE LARRIALDIKO FORU ZERBITZUA

☎️ 112 SOS DEIAK

🕒 21:00 - 07:00

GIZARTE LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZERBITZUA

🕒 07:00 - 21:00

☎️ Tel.: 943 224 411

ERTZAINNTZA

📍 Gipuzkoa kalea 46

☎️ Tel.: 943 538 900

UDALTZAINGOA

📍 Gipuzkoa kalea 32

☎️ Tel.: 943 005 115

ZARAUZKO ANBULATORIOA

📍 Salbide 10

☎️ Tel.: 943 007 999

Zerbitzu horietan arreta jasotzeko eskubidea daukazu eta laguntza jasotzeko, zure egoera juridikoa edozein izanda ere (paperekin edo gabe), eta errolatuta egonda edo egon gabe.

Oharra: gaztelaniaz komunikatzeko zailtasunak badituzu, zure hizkuntzara interpretatzeko zerbitzua eska dezakezu.

13_ EGOERA DISKRIMINATZAILERAK SALATZEKO BALIABIDEAK



ERABEREAN

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako sarea da, jatorri desberdinetik datorren diskriminazioaren aurka borroka egiteko (arrazza, etnia edo nazionalitatea eta sexu orientazio edo identitatea eta genero identitatea).

Zarautzen, ERABEREANek arreta-zerbitzu espezializatu eskaintzen du, Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren bidez. Laguntza eta aholkularitza ematen zaie arraza, etnia edo nazionalitate eta sexu orientazio edo identitatearen eta genero identitatearen ondoriozko diskriminazioaren biktime direnei eta era horretako diskriminazio-egoerak jasaten dituztenei.

situaciones discriminatorias de ese tipo.

📍 Zuberoa kalea 22

☎️ Tel.: 943 245 626 / 943 244 626

✉️ sosarrazakeria@euskalnet.net

ARARTEKO

EAEko administrazio publikoaren jardueran sortzen diren ustezko diskriminazio egoerekin lotutako kekek jasotzen ditu.

📍 Askatasunaren etorbidea 26-4
(20005 Donostia-San Sebastián)

☎️ Tel.: 943 420 888

💻 www.ararteko.net

14_

EMAKUME MIGRATZAILE ETA ZAINTZAILEENTZAKO ESPAZIOA



Pertsonen zaintzan jarduten duen etxe barruko langilea al zara?

Emakume migratzailea zara eta Zarautzen bizi edo lan egiten duzu?

Asteburuko ordu libreetarako espazio bat nahi al duzu?

Emakumeen* Etxea zabalik egongo da larunbat eta jaiegunetan, emakume zaintzaileek edo etxe barruko langileek aisialdirako gune bat izan dezazuen: kafe bat hartzeko, irakurtzeko, lagunekin hitz egiteko, ordenagailuan zerbait begiratzeko edo aholkularitza jasotzeko.

Zarauzko Emakumeen* Etxea emakume guztientzako doako espazio publikoa da.

Zure zain gaude!

EMAKUMEEN* ETXEA

- Larunbat eta jaiegunetan: 16:00 -20:00
- Nafarroa kalea 3-C , 20800 Zarautz
- Tel.: 943 005 136
- emakumeen-etxea@zarautz.eus

15_

FAMILIA MIGRATZAILEEI LAGUNTZEKO PROGRAMA



Urte askotan elkarrengandik urrun egon ondoren...

Zure seme-alabekin berriz elkartu al zara? Edo hori egiteko asmoa al duzu?

Zuk esperientziak badakizu ez dela erraza nor bere sorterrira uztea eta inguru berrira batera egokitzea; oso zaila da.

Haurrentzat ere ez da erraza, eta are gehiago urteak eman badituzte bere amarekin edo aitarekin bizi gabe.

Testuinguru berrira egokitze orduan, nahiko normala da bizikidetzaren horretan zailtasunak eta erronka berriak sortzea (eskola, harremanak...), eta, batez ere, guk alde aurretik imajinatu genuena eta errealitatea desberdinak direnean.

Udalak programa bat martxan jarri du berrelkartze prozesuan dauden eta/edo egongo diren familiei laguntzeko.

Zertarako?:

- Seme-alabak berriz elkartzeak familiari dakarkion antolaketa berria laguntzeko.

- Familia berriz elkartu ondoren bizi izandako esperientziak eta bizipenak jaso eta gure familiaren historian sartzeko.
- Familiaren testuinguru berria elkarren arteko egokitzapenean laguntzeko.
- Familiei prozesu horretan orientatzeko.

Informazio gehiago nahi baduzu, Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan hitzordua eska dezakezu.

ZARAUZKO UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK

- Telefonoz:** asteleheneetik ostiralera: 8:30 - 14:30
- Aurrez aurre:** Astelehen, astearte eta ostegunetan: 08:30 a 13:30 Asteazken eta ostiraletan: 10:00 - 13:00
- Zigordia kalea 33
- Tel.: 943 005 111 - 943 005 127

16_



AHOLKULARITZA JURIDIKOA (ATZERRITARTASUN ARLOAREKIN LOTUTA)

AHOLKU-SAREA

Eusko Jaurlaritzak AHOLKU-SAREA izeneko sare bat dauka, atzerritartasun arloko aholkularitza juridikoa emateko ahulezia egoeran dauden etorkinei.

• Atzerritarrei laguntza ematen zaie Espainiako estatuan bizitzeko, lan egiteko edo ikasteko behar dituzten baimen administratiboak lortzeko.

• Pertsona batzuk beren oinarrizko eskubideak erabiltzeko dituzten zailtasunak jaso eta salatzen dituzte (justizia, hezkuntza, osasun-laguntza, etab. jasotzeko eskubidea).

Zarautzen **SOS ARRAZAKERIA** arduratzen da zerbitzu hori emateaz.

Zuberoka kalea 22 (Zarautz)

Tel.: 943 245 626 / 943 245 627

EUSKO JAURLARITZAREN INFORMAZIO ETA ARRETAKO DOAKO TELEFONOA

Tel.: 900 840890

asesoria@euskadi.eus

Egoera administratiboei eta atzerritartasuneko legediari buruzko arloetan informazioa, orientazioa eta aholkularitza ematen du, eta jendea zerbitzu espezializatuetara bideratzen da.

Telefonoak badu aldebereko itzulpen zerbitzua ere, EAEn gehien hitz egiten diren hizkuntzetarako.

17_



IMMIGRAZIOA ETA ANIZTASUN KULTURALA

Zerbitzu honek hainbat programa eta jarduera egiten ditu, batetik, udalerrira iritsi berri diren pertsonen integrazioa bultzatzeko eta, bestetik, bizikidetzak sustatzeko, Zarautzen dauden kulturen arteko errespetuan oinarrituta.

Hauek dira jarduera nagusiak:

• **Zarauztik Mundura, kulturen arteko festa.** Zarauzko aniztasun kulturala omentzen da urteroko festa honetan, eta denok zarauztarrak gairela ospatzen da.

• **Bertakoak.** Urtean behin, jatorri desberdinetako zarauztarrak udalerriko elkarte gastronomiko bateko mahai baten inguruan biltzen gara, elkar ezagutzeko eta Zarauzko bizilagun berrien integrazioa bultzatzeko.

• **Programa de Acogida:** informazioa eta orientazioa. Euskara eta harrera ikastaroa, hitzaldiak, familia migratzaileei laguntzeko programa, etab.

• **Integrazioarako eta sentsibilizazioarako programak.** Jarduera horiek irekita daude Zarauzko bizilagun guztientzat.

Programa horietan parte hartzeko edo kontsultak edo iradokizunak egiteko jar zaitez harremanetan Immigrazio eta Kultur Aniztasunaren Zerbitzuarekin.

Gizarte Zerbitzuak

Zigordia kalea 33 (Zarautz)

Tel.: 943 005 127

immigrazioa@zarautz.eus

18

JAIK ETAK EGUN BEREZIAK

Herri bizia da Zarautz, ekitaldiz betetakoa. Hauek egun berezienak:

SAN PELAIO da Zarauzko zaindaria, eta bere jai nagusiak ekainaren 25, 26 eta 27an ospatzen ditugu: haurren eta helduen danborradak, erraldoiak, buruhandiak eta blusa koloretsuz jantzitako kuadrillak izaten dira egun guztian zehar.

ASTE NAGUSIA abuztuaren erdian izaten da, eta traineru-estropadekin, su artifizialekin eta kontzertuekin ospatzen da.

Irailaren hasieran, berriz, **EUSKAL JAIEN** txanda izaten da: hilaren 9ra arte Euskal Astea izaten da, eta eguna bera, 9a, Euskal Jai Egun handia. Aste osoa eta Euskal Jai Eguna tokiko folkloreaken adierazpen bikainak dira, eta zarautzar guztiek jantzi ohi dute jantzi tradizionala.

19

GIDATZEKO BAIMENA

Euskal Autonomia Erkidegoan gidabaimen ofizialik gabe gidatzea delitua da.

Egoitza-baimenen bat lortutakoan, beste sei hilabetez erabil daiteke jatorrizko herrialdeko gidabaimena.

Epe hori amaitzean, Espainiako gidabaimena lortu behar da, aurrez baldintzak egiaztatuz eta dagozkion probak gaindituz: azterketa teorikoa eta praktikoa.

Europar Batasuneko edo Europar Espazio Ekonomikoko (Norvegia, Islandia y Lienchenstein) kide diren herrialdeetako gidabaimenen titularrek ez dute zertan egin azterketarik.

Europar Erkidegoko kide ez diren herrialdeetako gida-baimenak ere trukatu daitezke. Horretarako titullarrak bizileku-baimena, bizileku eta lan-baimena edo ikasketak egiteko egonaldi-baimena eduki beharko du, indarrean jakina. Ondoren aipatzen diren herrialdeak dira gida-baimenen truke horretan sartzen direnak:

- Andorra
- Algeria
- Argentina
- Bolivia
- Brasil
- Costa Rica
- Dominikar Errepublikak
- Ekuador
- El Salvador
- Filipinak
- Guatemala
- Hego Korea
- Japonia
- Kolonbia
- Mazedonia
- Maroko
- Monako
- Nikaragua
- Panama
- Paraguay
- Peru
- Serbia
- Suitza
- Tunisia
- Turkia
- Txile
- Ukraina
- Uruguai
- Venezuela

GIPUZKOAKO TRAFIKO ZUZENDARITZA


🕒 Astelehenetik ostiralera: 9:00-14:00

📍 Julio Caro Baroja plaza 2,
20018 Donostia

☎ Tel.: 943 452 000





20


BORONDATEZKO ITZULERA HUMANITARIOA



Europar Batasuneko ez den herrialde batekoa bazara eta hemen bizitzeko behar adina baliabide ekonomikorik ez baduzu, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak **“Retorno Voluntario Humanitario”** izeneko programa du (**Borondatezko Itzulera Humanitarioa**), zure herrialdera bueltatzen laguntzeko.

ZARAUZKO UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK

-  **Telefonoz:**
astelehenetik ostiralera: 8:30 - 14:30
-  **Aurrez aurre:**
Astelehen, astearte eta ostegunetan:
08:30 a 13:30
Asteazken eta ostiraletan: 10:00 - 13:00
-  **Zigordia kalea 33**
-  **Tel.: 943 005 111 - 943 005 127**



21

ATZERRITARTASUNEN TRAMITEEN DIREKTORIOA

POLIZIA NAZIONALA (ATZERRITARTASUNAREN ETA MUGEN BRIGADA - DONOSTIA):

Agiri hauek tramitatzeko:

- Itzultzeko baimenak
- Gonbidapen gutunak
- Ziurtagiriak eta Atzerritarren Identifikazio Zenbakia
- Ikasleak
- Atzerritarren Nortasun Txartela
- Nazionalitate txostenak
- Egonaldien luzapenak
- Erregimen komunitarioa
- Irabazirik gabeko egonaldiak
- Asilo eta babes eskaerak
- Bidaiatzeko baimenak eta Inskripzio-zedulak

- 🕒 Astelehenetik ostiralera: 09:00 - 17:00
- 📍 Jose Maria Salaberría kalea 16 (Donostia 20010)
- ☎ Tel.: 943 44 9 809 / 943 449 810 / 943 449 811

Hitzorduak on-line hartzen dira:

<https://sede.administracionespublicas.gob.es/icplusplus/index.html>

LANEKO SAIL PROBINTZIALA (GOBERNUAREN AZPIORDEZKARITZA). ATZERRITARREN UNITATEA DONOSTIAN

Europar Batasunetik kanpokoak direnek ondorengo dokumentuak tramitatzeko:

- Bizileku-baimenak
- Bizileku-baimena eta lan-baimena
- Familiak berrelkartzea
- Itzultzeko baimena
- Bidaiatzeko baimena edo egonaldi-zedula
- Egonaldiaren luzapena

- 📍 Javier de Barkaitzegi kalea z/g (20010 Donostia)
- ☎ Tel.: 943 989 300 / 943 989 115
- ✉ personal_oiac.gipuzkoa@seap.minhap.es

Telefonoa eta hitzordua:

- ☎ Tel.: 943 989 110 / 120 / 122 (astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 17:30era)

Hitzorduak on-line hartzen dira:

<https://sede.administracionespublicas.gob.es/icplusplus/index.html>

POLIZIA NAZIONALA

Europar Batasunakoei ondorengo dokumentuak tramitatzeko:

- Erregistroko ziurtagiria (Europar Batasuneko herritarrek bakarrik)
- Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren ziurtagiria
- Bizileku txartela
- Gobernuaren Gipuzkoako azpiordezkaritzan emandako baimenak, sinatuta eta hatz-marka jarrita
- 📍 Urumeako pasealekua 17-18 (20014 Donostia)
- ☎ Informazio orokorra: 943 449 800 / 943 449 810 / 943 449 811

Hitzorduak on-line hartzen dira:

<https://sede.administracionespublicas.gob.es/icplusplus/index.html>

Txosten hauek eskatzeko:

- Etxebizitza txostena familia berrelkartzeko.
- Errotze-txostena

EUSKO JAURLARITZA

- 🕒 Astelehenetik ostegunera: 8:30 - 18:00 Ostiraletan: 8:30 - 14:00
- 📍 Andia kalea 13 (20004 Donostia)
- ☎ Tel.: 012

ZARAUZKO UDALA - HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA

- 🕒 Astelehenetik ostiralera: 7:30 - 15:00; ostegunetan, gainera 17:00 - 19:00
- 📍 Kale Nagusia 29
- ☎ Tel.: 943 005 100
- ✉ udala@zarautz.eus

ESPAINIAR HERRITARTASUNA

On-line edo aurrez aurre eskatu daiteke, baina eskaera on-line egitea gomendatzen dugu prozesua arinagoa delako:

Online:

<https://sede.mjusticia.gob.es/cs/Satellite/Sede/es/tramites/nacionalidad-espanola>

NAZIOARTEKO BABES ESKAERAK

Bi dira Gipuzkoan gai horretan aritzen diren erakundeak: CEAR-Euskadi eta Gurutze Gorria.

CEAR-Euskadi


- 📍 Amezetarrak kalea 3, behea (20100 Donostia)
- ☎ Tel.: 943 422 483

Gurutze Gorria

- 📍 Zorroaga pasealekua 23-27 (20011 Donostia)
- ☎ Tel.: 943 222 222

22_

UDAL EKIPAMENDUAK



MUSIKA

Musika ikasteko udal zentroa. Musika tailerra, musika mintzaira eta instrumentuak jotzen ikasteko eskolak ematen dira.

• Imanol Urbietak Musika Eskola

📍 Lapurdi kalea 9

📞 Tel.: 943 506 589

INTERNET ERABILTZEN ETA SAREAN NABIGATZEN IKASTEKO ZENTRO PUBLIKOAK DA

• KZgunea

🕒 Astelehenetik ostiralera
09:00-13:00 / 16:00-20:00

📍 GAZTELEKUA, Zigordia kalea 34

📞 Tel.: 943 005 122

KIROLA

Zarautzek aukera zabala du kirol jarduera eta baliabideetan. Informazio gehiago Udak Kiroldegian.

• Udak Kiroldegia

🕒 Astelehenetik ostiralera
6:15 - 22:00
Larunbatetan:
8:00 -13:30 / 16:00 -21:00
Igande eta jaiegunetan:
9:00 - 13:00

📍 Araba kalea 20

📞 Tel.: 943 005 123

KULTUR ETXEA

Liburu eta DVDen doako mailegua. Irakurtzeko materiala: egunkariak, aldizkariak, irakurketa-gidak, etab. Interneten doako sarbidea. Erakusketak, bisita gidatuak: Arte eta Historia Museoa, argazki-artxiboa.

• Sanz Enea Kultur Etxea

🕒 Liburutegia helduentzat,
astelehenetik ostiralera
9:30 - 14:00 / 15:30 - 20:00

Umeentzat: 16:00 - 20:00

Ikus-entzunezkoak: 16:00 - 20:00

📍 Nafarroa kalea 22

📞 Tel.: 943 005 120

SEXU AHOLKULARITZA GUNEA

Sexualitateari, emozioei eta afektibitateari buruzko galderak, arazoak, zalantzak eta kontsultak argitzeko zerbitzua.

Aurrez aurre, telefonoz edo on-line egin daiteke kontsulta. Doakoa eta konfidentziala.

🕒 Asteartean: 17:00 - 21:00

📍 Zuberoa kalea 22 (atzea)

📞 Tel.: 943 005 128

✉️ sexuaholkularitza@gmail.com

GAZTEAK

• Gaztelekua

12 urtetik gorako nerabe eta gazteentzat sustapen eta aisialdi hezitzaileko zerbitzua. Jolasak, ikastaroak, eskulanak, lehiaketak, ibilaldiak, frontoia, egongelak, jolas-gelak etab.

🕒 Asteartetik ostiralera: 16:30 -20:30 /
Larunbat eta igandeetan: 17:00 -20:30

📍 Zigordia kalea 34

📞 Tel.: 943 005 122

✉️ gaztelekua@zarautz.eus

• Gazte informazio bulegoa.

Gai interesgarri buruzko informazioa ematen zaie Zarauzko gazteei: ikasketak, enplegua, karnetak, aisia, elkartegintza, etab.

🕒 Asteartetik ostiralera:
17:00 - 20:30 / Ostegunetan:
11:15 - 13:45

📍 Zigordia kalea 34

📞 Tel.: 943 005 122

✉️ gazteinformazioa@zarautz.org

UMEAK

• Ludotxo ludoteka

4tik 11 urtera bitarteko umeentzako espazioa

📍 Iturrubide 24-26

📞 Tel.: 660 685 001

🕒 Astelehenetik ostiralera,
4tik 8 urtera bitarteko umeentzat:
16:45 -19:30

Asteburuetan, 9tik 11 urtera
bitarteko umeentzat: 17:00 - 20:00

23 PLANOA



- | | | | | |
|--------------------|--------------------------|---------------------------------|-------------------------------|--|
| 1 HAZ | 7 Urola-kosta | 13 Salbatoré Mitxelena Ikastola | 19 Emakumeen* etxea | 25 Gazteleku/ Gazte informazio bulegoa |
| 2 Udal euskaltegia | 8 G. Zerbitzuak | 14 La Salle-San José | 20 Musika eskola | 26 Ludoteka |
| 3 Aek | 9 Caritas | 15 Antonioano Ikastetxea | 21 Kiroldegia | 27 Ertzaintza |
| 4 CEPA | 10 Haur Eskola | 16 Oteitza Lizeo Politeknikoa | 22 Kaz gunea | 28 Udaltzaingoa |
| 5 Osasun etxea | 11 Orokieta Herri Eskola | 17 IES Monte Albertia BHI | 23 Kultur etxea / Liburutegia | |
| 6 Lanbide | 12 Lizardi Institutua | 18 Zarauzlur | 24 Aholku sarea | |